



Gazako 200 umetik bat hil du Israelek azken sei asteetan

ARGIA :: 20/11/2023

Haurren Nazioarteko Egunean Al Jazeera hedabide arabiarrek Israelek eraildako palestinar haurren izenak publikatu ditu.

Haurren Nazioarteko Eguna da azaroaren 20an, eta [Al Jazeera hedabide arabiarrek](#) tarte berezia eskaini die palestinar hurrei. Israelek duela sei aste abiatu zuen eraso basatiaz geroztik, 5.500 haur hil ditu gutxienez Gazan, eta 1.800 ingururen berririk ez da. Haur zaurituak, gutxienez, 9.000 dira.

Gazak 2,3 milioi biztanle ditu, eta erdiak haurrak dira. Beraz, kalkuluak eginda, 200 umetik bat hil ditu Israelek azken sei asteetan. Hau da, hamar minutuero haur bat.

Eraildako haurren izenak ezagutzeko, Al Jazeera [erreportaje berezia](#) osatu du webgunean.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/gazako-200-umetik-bat-hil